



**EBAZPENA, 2019ko uztailaren 22koa, Hezkuntza Sailaren Langileak Kudeatzeko zuzendariarena; honen bidez, lehiaketa-aldian izangaiek lortutako puntuazio totalak argitara ematen dira (Hezkuntzako sailburuaren 2019ko martxoaren 1eko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduretan)**

---

Hezkuntzako sailburuaren 2019ko martxoaren 1eko Aginduaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren eta Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko eta hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozeduretarako deia egin zen.

Aipatutako Aginduaren 8.7 oinarriak zehazten duenarekin bat etorriz, argitara eman dira lehiaketa-aldian izangaiek lortutako behin betiko puntuazioak, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzaren Unitateek baloratutako meritua barematu ostean. Beste aldetik, Batzorde Barematzaileek argitara eman zituzten haiei barematzea dagozkien merituen behin betiko puntuazioak.

Horrenbestez,

**EBATZI DUT**

**Lehenengoa.-** Argitaratzea Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren eta Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko eta hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozeduretan izangaiek lortutako puntuazio totalak (Hautaketa-prozedurak Hezkuntza sailburuaren 2019ko martxoaren 1eko Aginduaren bidez deitu ziren).

**Bigarrena.-** Lehiaketa-aldiko puntuazio totalen zerrenda ondorengo lekuan emango da argitara:

<http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartu behar dira):  
“2019ko EPE. Maisu-maistrak, kontserbatorioak eta HEO” → “Hautaketa-prozesuaren jarraipena” → kidegoa eta espezialitatea adierazi behar dira → “Emaitzak” → “Lehiaketa aldia - Guztira”.

**Hirugarrena.-** Puntuazio totalaren aurka ez dago errekurtsua jartzerik; interesa duten izangaiek gorako errekurtsua jarri ahal izango dute izangai hautatuen behin betiko zerrendaren aurka (deialdiaren 10.3.2 oinarrian aurreikusitakoa).

Vitoria-Gasteizen, 2019ko uztailaren 22an

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

JON AGIRRE HUERGA